

## AGINTARIAK ETA LANGILEAK

### Oposizioak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 72

*1386/2025 EBAZPENA, abenduaren 10ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratu egiten den lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2025eko urriko zikloaren destinoen eskaintza, teknikari laguntzaile profesionalak izeneko lanbide-taldeko jostintzako ofizialaren kategoriarako/lanpostu funtzionalerako, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa izanik.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoan oinarritzeko destinoak hornitzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren.

Aipatutako erabakiaren azken xedapenetako bigarrenak ezartzen duenez, erabakia garatzeko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari eskumena ematen zaio beharrezko ebazpen edo instrukzioak eman ditzan, erabakia egoki eta zuzen aplikatu dadin Ente Publikoaren zerbitzu-erakunde guztietan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1314/2021 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorra egiteko deialdia egin zen, teknikari laguntzaile profesionalak lanbide-taldeko jostintzako ofizialaren kategoriarako/lanpostu funtzionalerako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 4.2.1 apartatuan xedatutakoari jarraituz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen Zuzendaritzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratuko du destinoen eskaintza.

Azaldutako guztiaren ondorioz, eta pertsonalaren arloan indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskumenez baliatuz,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitaratzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2025eko urriko zikloko destinoen eskaintza, teknikari laguntzaile profesionalak izeneko lanbide-taldeko jostintzako ofizialaren kategoriarako/lanpostu funtzionalerako, ebazpen honekin batera doan eranskinaren bidez.

Ebazpen honen bidez egiten den deialdiaren zikloan data hau hartu da erreferentziaz: 2025eko urriaren 7a, eskainiko diren lanpostuak hautatzeko. Egun horretatik aurrera, ez da inolako aldaketarik egingo lanpostuak lortzeko baldintzetan eta ezaugarrietan, salbu eta eskaintzan akatsik antzematen bada.

Destinoak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko plantilla funtzionalean identifikatzen dituzten ezaugarriekin eskaintzen dira, eta honako hauek adierazten dira: zer zerbitzu-erakundetakoak diren; zer lantoki, antolaketa-unitate eta herritakoak diren; lanaldi-erregimena; eta hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data adierazita, halakorik esleitura bada. Hizkuntza-eskakizunari eta, hala

badagokio, horren derrigortasun-datari dagokionez, bereziki azpimarratzen da aurretik adostu direla, erreferentziazat hartutako 2025eko urriaren 7a baino lehen, hain zuzen ere, eta hala egin dela Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2022ko urtarrilaren 27an onartutako III. Euskara Plana eta ekainaren 1eko 3/2022 Instrukzioa betetzeko.

Eskainitako lanpostuak oinarrizko lanpostuak dira, eta adierazitako erreferentzia-datan ez zuten titularrik.

2025eko urriko ziklo honetan, 2026ko urtarrilaren 29a hartu da erreferentziazat destino-aukera egiteko edo horiek aldatzeko, baldintzak betetzeko, alegazioak egiteko eta merezimenduak baloratzeko.

Lehiatzaileek eskabidea aldatu ahal izango dute, destinoen hautaketa barne, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren eta urriaren 21eko 1314/2021 Ebazpenaren oinarrietan araututakoaren arabera, 2026ko urtarrilaren 29ra arte, 2025eko urriaren ziklo honi dagokionez.

Destinoen hautaketa egiteko eta, hala badagokio, hautaketa hura aldatzeko, lekualdatze lehiaketa ireki eta iraunkorrean parte hartu ahal izateko gaitu den aplikazio informatikoa erabiliko da, eta ez da inolako dokumentaziorik aurkeztu beharko.

2025eko urriko ziklo honetan, 2026ko urtarrilaren 29ra arte egindako destino-hautaketa hartuko da kontuan, aldeztu aurretik adierazitakoaren arabera.

2025eko urriko ziklo honetan, prozesu orokorrean egindako eskabideak sartuko dira, baldin eta 2026ko urtarrilaren 29an gutxienez ziklo honetan eskainitako destinoetako bat badute. Beraz, destinoen hautaketa egin ez bada, hautaketarik eza hura zuzendu beharko da, eta zuzenketa hori egiteko erreferentziazko datara arteko epea egongo da, edo hamar eguneko epea, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 73. artikulutik eratorritako eskaeratik aurrera.

Bigarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren estatutu sozialak ezartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 10a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,  
JOSUNE RETEGI ORMAZABAL.

## ERANSKINA

## DESTINOEN ZERRENDA

## KATEGORIA: JOSTUNDEGIKO OFIZIALA

## LANPOSTU FUNTZIONALA: JOSTUNDEGIKO OFIZIALA

Destino kop.	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa
1	Barrualde-Galdakaoko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak – Ospitaleko Arreta / Galdakao-Usansoloko Ospitalea-Galdakao / Zerbitzu Orokorrak-Ikuztegia / Arropa Zuria-Arropa Zuria / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Data igarota
1	Bidasoko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak – Ospitaleko Arreta / Bidasoako Ospitalea-Hondarribia / Zerbitzu Orokorrak-Ikuztegia / Arropa Zuria-Arropa Zuria / Goizez-Goizez lerrakorra, finkoa-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Data igarota
2	Donostialdeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak – Ospitaleko Arreta / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia / San Sebastián / Zerbitzu Orokorrak-Ikuztegia / Arropa Zuria-Ikuztegia / Arropa Zuria / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Asteburuekin edota jaiegunekin / 2HE-Data igarota
2	Donostialdeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia / San Sebastián / Zerbitzu Orokorrak-Ikuztegia / Arropa zuria-Ikuztegia / Arropa Zuria / 2 Txanda-2 Txanda Go/A-Asteburuekin edota jaiegunekin / 2HE-Mugaegunik gabe